

Eremu gorrian sartu dira Tolosaldeko hamaika udalerrri

Tolosarekin batera, Adunan, Amasa-Villabonan, Alegian, Anoetan, Berrobin, Bidania-Goiatzen, Hernialden, Ibarra, Iruran eta Zizurkilen sartu-irtenak debekatuta egongo dira gaurtik aurrera // 4

Begiratokiaren ibilbide zirkularra osatuko dute Alkizan

Bost kilometroko zirkuitu laburra izango da, eta herriko ondare etnografiko-arkeologikoa eta balio paisajistikoa erakusteko balioko du // 5

Aralarko sutearen inguruko argibideak eskatu dituzte

Aralar Bizirik Plataformak martxoaren 31n Artubi inguruan izan zen sutea salatu eta neurriak hartzeko eskatu du // 4

Peña eta Altuna Binakako Txapelketaren finalerdietan lehiatuko dira

Altuna III.ak eta Mariezkurrena II.ak 19-22 irabazi zuten larunbatean, Jaka eta Martijaren aurka // 7



LARRAUL ENERGIA KOMUNITATEA

Energia berriztagarria kontsumitu eta faktura elektrikoa merkeago izateko, energia komunitatea sortu dute Larraulen; 90 eguzki panel jarriko dituzte pilotalekuko estalkian, eta 50 etxebizitzak erabili ahalko dute energia hori // 5

IRATISAZAR



Sortuko kideek Tolosan egindako agerraldian eman zuten hilaren 25eko omenaldiaren berri. JOSU ARTUTXA

«Herri honen askapen prozesuari ekarpena» egin dioten tolosarrak omenduko ditu Sortuk

Jokin Gorostidi hil zela 15 urte beteko diren egunean, apirilaren 25ean, egingo dute ekitaldia; «herri gisako bizitza erdigunean jarri zutelako gaude bizirik», adierazi du Sortuk // 3



'Hil aurretik nahi dut' proiektuaren baitan, Gipuzkoako hainbat herritan osatu dituzte horrelako muralak. ATARIA

Heriotzari buruz hitz egiteko kafe tertuliak egingo dituzte, gaur, Tolosan, eta ostiralean, Anoetan; bertan, gainera, 'Aulki hutsak' dokumentala ikusteko aukera izango da

Bizitzaren parte delako

Josu Artutxa Dorronsoro

azko azaroan, *Heriotzari bizia ematen* jaialdia ospatu zuten www.dandovidaa-lamuerte.org plataformaren baitan, espainiar estatuko hainbat elkarte. Horrela, modu sinbolikoan izan bazen ere, Gipuzkoako zenbait herritan parte hartzeko aukera izan zen, *Hil aurretik nahi dut...* ekimenaren bitartez. Horietako batzuetan, arbel batzuk jarri zituzten, herritarrek beren bizitzei buruz hausnartzeko eta gainerakoekin asmo pertsonalak partekatzeo aukera izan zezaten.

Tolosan ere ekimen bera aurrera eramateko asmoa zuten, baina azkenean, osasun egoeraren larritasuna ikusita, ez zuten herrian arbelak jartzerik izan. Horren ordez, Death Cafe izeneko ekimena burutu nahi izan zuten, heriotzari buruz hitz egiteko topaketa bat, alegia. Hura ere, ordea, atzeratu egin zuten.

Azkenean, biharko egin dute hitzordua; 19:00etatik 20:00etara izango da, Amaroako auzoetxean. «Ez da dolurako laguntza bat eta gure asmoa ez da ondorioak ateratzea», diote antolatzailak. Edukiera mugak direla eta, aurrez izena ematea eska-

tzen dute. Horretarako, 656 748 391 (Javi) telefono zenbakira deitu behar da.

PROZESUA NORMALIZATZEA

Duela 10 urte izandako ezbehar baten ondorioz hasi zen Javi Aramendia tolosarra heriotzari buruz sakontasun handiagorik hausnartzen. «Bihotzeko bat izan nuen, susto txiki bat. Zorionez, bizia eman ninduten, eta orain niri dagokit heriotzari naturaltasunez aurre egitea, eta hori azaleratu eta ezagutaraztea». Hori dela eta, gerora, Vivir un buen morir fundazioan aritu zen; eta orain, fundazio horretan izan ziren beste bi tolosar eta amezketar batekin batera, elkarre bat sortze bidean dira. Koronabirusaren pandemiaren ondorioz, gorabehera asko izan dituztela esan du, eta oraingoan, hau dela antolatu duten lehen ekimena.

Tolosan, Death cafe bat egiten den lehen aldia izango da gaurkoa, eta Amaia Gozategi Mandalaria elkarte koordintatzaileak gidatuko du saioa. «Horrelako saioetan esperientzia eta erakozimendu handia duen pertsona da. Heriotzaz hitz egiteko toki lasaia eta libre izatea nahi dugu; esperientziak, zalantzak

edota beldurrak partekatzea da asmoa». Lehenik, sarrera modura, testu bat irakurriko da, eta ondoren, hitza hartzeko erronda bat egingo da bertaratzen direnekin. «Isilik geratzeko aukera ere badute; ez dugu inor hitz egitera behartu nahi. Entzunez soilik ere asko adierazten da».

Heriotzarako prozesua normalizatzea izango da topaketaren helburu nagusia; horri lotuta, adibide bat jarri du Aramendia. «Gertuko norbait hiltzen denean, eta beragandik urrun aurkitzen zarenean, betirako gertatuko zaizu gertutasun faltaren sententzia, amorratuta sentituko zara. Horrelako egoerak partekatzea eta antzeko sentimenduak izan dituztenen laguntza eta babesa jasotzea da asmoa, egoera horiei elkarrekin aurre egin ahal izateko. Izan ere, lehen naturala zen gertuko norbait hiltzea; orain, ordea, ez. Etxetik kanpo atera dugu heriotzaren gaia eta hiltzen jakiteko kultura galdu dute askok».

Adinekoak eta gazteak joaten dira saio horietara. Tolosako saiorako hamar lagunek eman dute izena, eta antolatzailak «oso pozik» daude, gutxienez sei lagun biltzea zelako helburua. «Hala ere, gehiagorentzako dago

tokia, hamabost laguneko talde txikietan egin ohi baitira horrelako saioak. Ez dakigu zer ikusi eta zer entzungo dugun, baina ziur naiz norberaren bihotzetik eta askatasunetik tiraka, ekimen polit bat suertatu daitekeela», gaineratu du Aramendia.

Aurreratu duenez, Uzturre zaharren egoitzarekin duten harremana dela eta, elkarri lagunduz ari dira aurrera eramaten proiektua, eta aurrera begira, hainbat jarduerak dituzte antolatuta. Hain justu, iazko Santu Guztien Egunerako, bertako egoiliarrek egindako mural bat kalean jartzea zen asmoa, baina ezin izan zuten. «Egoiliarrei baino gehiago, familiei adierazi nahi diegu babesa. Asko dira, euren senideren bat hiltzea onartzen ez duten familiak, eta horiei lagundu beharrean gara», nabarmendu du.

BIZIA ETA HERIOTZA, BATERA

Abenduan, 2 urte bete ziren Azpeitian heriotzari buruzko tertuliekin hasi zirenetik. Tartean zen Iñaki Arregi elgoibartarra, Al-maur elkarte zuzendaria eta Urbizixa proiektuko sustatzailea. «Modu batera edo bestera, dolua pairatu dugun pertsonak gara, eta horren ondorioz sortu zen tertulia hauek egiteko go-goa», esan du.

Biziaren eta heriotzaren pedagogia egiten dute Almaur Elkarte kideek. «Bizia eta heriotza elkarrekin joan daitezela nahi dugu, ez daitezela elkarrengandik hain urrun egon. Heriotza egunerokotasunean dago, eta banaketa horrek min handia eragiten digu. Bizitzeko ahalmena ere murriztea ekartzen du».

Heriotzari buruz hitz egitea «oso garrantzitsua» dela adierazi du Arregik. «Hasteko, noizbait denok hilko garelako, bizitzaren parte delako, eta gure inguruan galerak ere ikusi eta sufrutuko ditugulako. Heriotza naturalizatzea gure zaintza bultzatzea da». Gainera, sozialki «hutsune handi bat» dagoela ikusten du. «Erizainek edota irakasleek ardura potolo bat dute. Naturala den zerbait normalizat hartzen badugu, galerak izaten ditugunerako, geroz eta tresna gehiago izango ditugu egoerak kudeatzeko».

Almaur elkarteak antolatuta, zine forum bat egingo dute, ostiralean, Anoetako Mikelasagasti auditorioan, 18:00etan. *Aulki hutsak* dokumentala ikusi ondoren, heriotzari buruz hausnartzeko tartea izango da. «Sentimenduak partekatzea da asmoa, elkarri laguntzea. Garrantzi handiagoa eman behar diogu dugunari, ez dugunari baino».

Udalekuak eta Gazte Oporraldiak kanpainak, martxan

7-13 eta 14-17 urte bitarteko haurrentzako da eskaintza; lekua gorde ahal izateko, hilaren 20a baino lehen eman behar da izena.

J. Artutxa Dorronsoro

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Arabako eta Bizkaiko foru aldundiekin elkarlanean, Udalekuak kanpaina antolatzen du, urtero, 7-13 urte bitarteko haurrentzat; 14-17 urte bitarteko gazteentzat, berriz, Gazte Oporraldiak antolatzen dituzte. Azken hauetan, gipuzkoarrek bakarrik hartuko dute parte jarduerak batzuetan.

Udalekuak programan, euskarazko hizkuntza ereduaren edo elebidunaren artean aukeratu ahal izango dute parte-hartzaileek. Gazte Oporraldiak programan, berriz, euskararen edo gaztelaniaren arteko hautua egin beharko dute. Gaztelaniazko saioetan, EAEko gazteek gain, beste autonomia erkidegoetako gazteak ere egongo dira.

Zozketa bidez banatuko dira lekuak, eta parte hartzeko, hilaren 20a bitarte eman behar da izena. Internet bidez eman daiteke www.gipuzkoa.eus/udalekuak helbidean; bestela, foru aldundiko Gaztegunean edo Tolosako kultur etxean. Eskaerak banaka eta taldeka egin daitezke (3 lagun gehienez). Bi programe-tan, hiru adin-tarte desberdinduko dira eta bakoitzak eskaerorri berezi bat izango du.

Zozketa jendaurrean egingo dute hilaren 27an, eta jardueretan parte hartuko duten haur kopurua ahalik eta handiena izan dadin, lehentasuna emango zaie aurreko urteetako kanpainetan parte hartu eta txanda egokitu ez zitzaizkaien. Beraz, lekuen esleipena, aurreko lau urteetako parte hartzearen arabera egingo dute.

Aurreko urteetan bezala, izena emateko lehenengo prozesuan plazarik gabe gelditu diren artean banatuko dira libre gelditu diren plazak. Zozketa egin eta plazak esleitu ondoren egingo da behin betiko izen ematea. Lekua behin betiko gordeta gera dadin, ordainketa egin behar da lehenik, eta beharrezko dokumentazioa bidali beharko dute parte hartzaileek.

«Omenaldirik onena, askapenaren bidetik urrats berriak ematea da»

Apirilaren 25ean, Jokin Gorostidi hil zela 15 urte beteko diren egunean, «herri honen askapen prozesuari ekarpena egin dioten Tolosako ehunka borrokalaria» omenduko ditu Tolosako Sortuk

Josu Artutxa Dorronsoro
Tolosa

Duela 50 urte, Burgosen epaitu eta heriotzara zigortu zuten Jokin Gorostidi tolosarra. Handik 8 urtera, deserriratzetik itzuli ondoren, zinegotzi eta legebiltzarkide izan zen. 1997an, berriz espetxeratu zuten, eta 2006ko apirilaren 25ean hil zen. «Milaka eta milaka militante batzen dituen belaunaldi ezberdinen adibide bat da», esan dute Tolosako Sortuko kideek.

Haren omenez, apirilaren 25ean, Gorostidiren heriotzaren 15. urteurrenean, ekitaldia izango da, Topic-en, 12:00etan. «Jokin bera eta herri honen askapen prozesuari ekarpena egin dioten Tolosako ehunka borrokalaria omendu nahi ditugu. Herri gisako bizitza erdigunean jarri zutelako gaude bizirik».

Koronabirusaren pandemiak, «tragedia erraldoia» ekarri duela adierazi dute. «Egungo sistema sozial, ekonomiko eta politikoa- ren gabeziak eta injustiziak sakondu, eta une berean, agerian



Euskal Pizkundean eman dute ekitaldiaren berri. J. ARTUTXA

utzi ditu. Gure ustez, komunitatea zentroan kokatzea da, askotariko aldaerak dituen krisiari aurre egiteko bidea».

Krisiak azaleratu dituen erro- kei aurre egiteko «burujabe» izan behar dela esan dute. «Euskal Herri- tik at hartzen dira gure bizitza baldintzatzen dituzten erabakiak. Gaur hemen, bada bere bu- ruaren jabe izan nahi duen komu- nitate bat, herri bat, bestela bizi nahi duena, hemen eta mundu osoan. Geroari so egin behar dio- gu, nondik gatozen ahaztu gabe. Bizirauteko hautua egin zutelako

batzuek gaude bizirik herri gisa. Areagotzen ari zen subordinazio- aren kontra, injustiziaren kontra matxinatu ziren eta hamaika es- parrutan hartu zuen indarra eus- kal matxinadaren suak».

Besteak beste, «borrokak bide- ak irekitzen dituela» eta «borroka askatzaileek mundua hobetzen dutela» azpimarratu dute. «Mun- duan eman diren aurrerapen oro borroka askatzaileen ondorioak dira. Biziraupenaren lehia irabazi zuten belaunaldi ezberdinetako gazte horiek. Zor dieguna ez dugu inoiz ahaztuko».

Garikoitz Etxeberria Dueñaseko kartzelara lekualdatuko dute

Orain arte, Sevilla II espetxean zegoen lizartzarra; Etxeberriaz gain, beste bi euskal preso hurbilduko dituzte

Erredakzioa Lizartza

Azken asteotan baino mugimen- du gutxiago iragarri zituzten pasa den ostiralean Espainiako Espe- txe Erakundeek: hiru euskal pre- so hurbilduko dituzte Euskal He- rriko inguruko kartzelara, eta tartean da Garikoitz Etxeberria Goikoetxea lizartzarra; Andalu- ziatik hurbilduko dute. Hain justu, 990 kilometrotara dagoen Se- villa II espetxetik, 310 kilometro- tara geratzen den Dueñasekora (Palentzia) eramango dute. Ez dute iragarri inor Euskal Herri- tuko dutenik.

Lizartzarrarekin batera gertu- ratuko dituzte Fernando Elejalde eta Iñigo Vallejo Franjo. Lehena Tapia Puerto I kartzelatik (Anda- luzia, 1.020 kilometro) Mansillara mugituko dute (Gaztela eta Leon, 370 kilometro) eta bigarrena Dueñasetik Duesora (Kantabria, 170 kilometro). Elejalde zen Puer- to I kartzelan zegoen azken euskal preso, eta, beraz, euskal presorik gabe geldituko da kartzela hori. Puerto III kartzelan (Andaluzia) oraindik bederatzi euskal preso geratzen dira.

Bestalde, Herrera de la Man- chako espetxean jada ez da euskal presorik. Argazki hori utzi dute

asteon Espainiako Espetxe Era- kundeez egindako mugimen- duek. Izan ere, Etxerat senideen elkarteak jakinarazi duenez, aitzin- etik iragarritako zazpi mugimendu egin ditu Madrilek azken egunotan, eta horien artean zen Jon Mirena San Pedro Blancorena: Herrera de la Manchako (Gaz- tela-Mantxa, 640 kilometro) az- ken euskal preso izan da, Dueña- sera hurbildu baitute.

Beste mugimenduetatik, hiru Euskal Herriatu egin dituzte: Juan Carlos Subijana Izquierdo Leondik Basaurira; Josune Arria- ga Martinez, Topasetik Iruñera; eta Ainhoa Barbarin Iurrebaso, Picassentetik Zaballara. Iñaki Etxeberria Martin, berriz, Topa- setik Duesora hurbildu dute; Ar- kaitz Goikoetxea Basabe, Villena- tik Logroñora; eta Gorka Palacios Aldai, Murcia II-tik Estremerara.

Mugimendu horiekin, dagoe- neko 31 dira Euskal Herrian dau- den euskal presoak: hamabost Za- ballan daude —horietatik hiru ez dira EPPK-koak—, zazpi Martute- nen, bertz Iruñean, eta bi Basau- rin.

Beste biak zentro berezietan daude: Aita Mennin bat (Arrasa- te) eta Besarkada zentroan bes- tea (Gasteiz).



LANAK BUKATU DITUZTE

Amasa-Villabonako Udalak Larrea auzoko errepedea as- faltatzeko eta txukuntzeko lanak egin ditu egunotan. As- faltatze eta pintatze lanak bukatu dituzte jada, eta ingu- runea txukundu dute. «Au- zoko errepedearen egoera asko hobetzea lortu da zalan- tzarik gabe», esan dute udale- ko iturriek. Bide batez, eske- rrak eman nahi izan dizkiete auzokideei izandako pazien- tziagatik. ATARIA

Aralarko sutearen inguruan, argibide eske

Aralar Bizirik Plataformak martxoaren 31n Artubi inguruan izan zen sutea salatu du, eta «beharrezko neurriak» hartzea eskatu du

Erredakzioa

Martxoaren 31n sutea izan zen Aralar Natur Parkean. Zehazki, Artubitik gertu, eta Arritzaga bailaratik gora, Buruntzuntzin eta Uakorri eremuen artean. Aralar Bizirik Plataformak gertara salatuta du: «Gure informazio

iturrien arabera, hamar hektarea inguru erre dira, edo nahita erre dituzte; gehiena otea eta almitza».

Aralar Bizirik Plataformak gogora ekarri du: «Eremu hori Enrrio-Aralar Mankomunitatearen barrutikoa da, eta Aralar Natur Parkearen barruan dago». Sutea izan osteko egunak jai egunak suertatu ziren, baina harrituta daude plataformako kideak: «Jai egunak jarraian izan direla jakinda ere, harritzen gara, orain artean, ez aldundiak ezta mankomu-



Artubitik gertu dagoen eremu batean izan zen sutea, Aralarren. ATARIA

nitateak ere ez dutelako ezer adierazi horren inguruan».

Aralar Bizirik Plataformatik, bi erakunde horiei «ikerketa sakona» egin dezatela eskatu diete, sute horri buruz, emaitzak publikoak egin ditzatela eta beharrezko neurriak har ditzatela. Eta horrekin batera, basozain kopurua handitzea eta urtero garai bertuan suteak izaten direnean, «mendian zainketa bereziak egin ditzatela behar diren tresna aurreratuenekin», ere eskatu dute.

Hilaren 21a bitartean zabalik da haur eskoletan izena emateko epea

Erredakzioa

Haurreskolak Partzuergoak 20 haur eskola ditu eskualdean, eta dagoeneko haur txikienek matrikula egiteko aukera dute. Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Berastegi, Berrobi, Elduain, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Lizartza, Orendain, Tolosa eta Zizurkilen daude haur eskolak, eta hilaren 21a izango da izen emateko azken eguna.

2020 eta 2021ean jaiotako haurrek izango dute izena emateko aukera, 0 eta 2 urte arteko zerbitzua eskaintzen duten herrietan. Aldiz, eskolarik ez duten herrietan, 0-3 urte arteko haurrek egin beharko dute matrikula.

Internet bidez egin daiteke izen ematea www.haurreskolak.eus webgunearen bidez, edo herrietako haur eskoletara hurbilduta egin ahal izango da.

GUTUNAK

Eskerrik asko

Mikela Malkorra Arrastoaren familia Asuncion klinikako langileei eskertu nahi diegu bertan jaso dugun arreta eta zoriondu nahi ditugu erakutsi duten profesionaltasunagatik.

Eskerrik asko, lan bikaina egin duzue!

Esnaola-Malkorra familia

Tolosaldeko hamaika udalerrri daude eremu gorrian

Tolosan bezala, Aduna, Amasa-Villabona, Alegia, Anoeta, Berrobi, Bidania-Goiatz, Hernialde, Ibarra, Irura, eta Zizurkilen neurriak gogortuko dituzte gaurtik hasita

Erredakzioa

Azken egunetan COVID-19an kutsatutakoen kopuruak asko egin du gora, eta berdin gertatu da Tolosaldean. Hala, pasa den astelehenean Osasun sailak kaleratutako eremu gorrian dauden udalerrien zerrendan herri bakarra —Tolosa— agertzen bazen ere, atzo kaleratutakoan hamaika dira zerrendara batu diren Tolosaldeko herriak.

Hain justu, Tolosarekin batera, Aduna, Amasa-Villabona, Alegia, Anoeta, Berrobi, Bidania-Goiatz, Hernialde, Ibarra, Irura eta Zizurkil dira eremu gorrira pasa direnak. Ondorioz, gaurtik aurrera herri horietako herritarrek ezingo dute udalerritik atera lan edo osasun arrazoiengatik ez bada, eta soilik aldameneko herrira joan ahalko dute erosketak egitera edo aire libreko kirola praktikatzera. Era berean, herri horietara ezingo dute sartu gainerako herritarrek.

Horretaz gain, ostalaritzako

barrualdeetako ordutegia murriztuta izango dute, 06:30etik 09:30era eta 13:00etatik 16:30era, eta barrualdean kirola egiteko mugak izango dituzte.

Guztira, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 51 udalerrri daude eremu gorrian. Udalerriekin batera, azken hamabost eguneko intzidentzia metatua 400eko langa gaudituta, Gipuzkoa eta Araba ere eremu gorrian daude, beraz, ezingo da bi probintzia horietatik atera. Neurri murriztaileak, datorren astelehena bitarte, hain da, Osasun sailak eremu gorrian dauden herrien zerrenda berria kaleratu bitarte luzatuko dira.

86 POSITIBO

Osasun sailak emandako datuen arabera, ostiraletik igandera, Tolosan 31 positibo atzeman dituzte, Amasa-Villabonan 13, Anoetan 9, Iruran eta Zizurkilen seina, Ibarra 4, Alegian eta Berastegin hiruna, Adunan, Berrobin eta Hernialden bina eta Albizturren, Altzon, Baliarrai-



Alegia da eremu gorrian sartu den herrietako bat. E. MAIZ

nen, Bidania-Goiatzen eta Lizartzan positibo bana.

Osasun sailaren datuen arabera, 6.871 test egin zituzten igandean, eta horietatik, 596 (%8,1) positiboak izan ziren. Tolosaldearen kasuan, 24 positibo izan ziren. Larunbatean, 9.442 test egin zituzten, eta horietatik 761 (%8,1) izan ziren positiboak, eta Tolosaldean, 30 positibo atzeman zituzten. Ostiraletan, berriz, 10.289 test eginda, 920 izan ziren positiboak (%8,9). Tolosaldeko positiboak 32 izan ziren.

5.000 biztanletik gorako Tolo-

saldeko herrien kasuan, berriz, Amasa-Villabona kolore gorrian dago 473ko tasarekin eta Tolosalde gorrian jarraitzen du, 737ko tasarekin.

Bestalde, Osasun eremuei begiratuta, Alegiakoa (521), Ibarrakoa (535), Tolosakoa (706) nahiz Villabonakoa (619) gorrian daude, baita Tolosaldeko ESIA ere (566).

Ospitaleen egoerari dagokionez, COVIDaren ondorioz 64 pertsona ospitaleratu zituzten igandean, eta COVIDa duten 125 pertsona ZIU daude.

Tokiko Energia Komunitatea sortuko dute Larraulen

Frontoiko estalkian 90 eguzki panel jarriko dituzte eta 500 metroko erradioan dauden 50 etxebizitzek aukera izango dute komunitateko kide izan eta energia hori kontsumitzeko

Irati Saizar Artola Larraul

Larraulen energia komunitate bat sortu nahi dute, energia berriztagarria kontsumitu eta faktura elektrikoa merkeagoa izateko. Horretarako, 90 eguzki panel jarriko dituzte pilotalekuko estalkian, eta 500 metroko erradioan dauden 50 etxebizitzek aukera izango dute energia hori erabiltzeko. Larraulgo Udalak, Edinor enpresarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen sailarekin batera sustatutako ekimena da; bere helburu nagusiak lurraldeko energia mendekotasuna murriztea, energia berriztagarrien erabilera sustatzea eta autokontsumoa bultzatzea dira. Horrela azaldu zuten ostiralean, Jose Ignacio Asensio Ingurumeneko diputatuak, Maite Arana Larraulgo alkateak eta Juan Diego Edinorreko kontseilariak Larraulen egindako aurkezpenean. Komunitate horretako parte eginez gero, etxebizitza bakoitzak urtean %20 inguru aurreztuko luke argiaren fakturan. Ko-



Jose Ignacio Asensio, Maite Arana eta Juan Diego, Larraulgo udaletxeko pleno aretoan, egitasmoa aurkezten. I. S. A.

munitate hori, Larraulgo bizilagunek osatuko dute, eta asmoa 50 etxebizitzak parte hartzea dela azaldu zuen alkateak. «Komunitateko kide izatea erabakitzen duten herritarrek beraien energia sortu eta kontsumitu ahaliko dute, enpresa handien bezero izatetik energiarekiko harrereana kontrolatu eta sortzera

pasako baitira». Izan ere, udalak komunitatearen esku utziko du pilotalekuko estalkia, eta modu horretara, panelak ere komunitatearen esku geratuko dira.

Behin komunitatea sortuta, 30 kW-ko 90 panel jarriko dituzte frontoian, eta bizilagunek lehen momentutik aurreztu ahal izango dute. Izan ere, etxebizitza

horiek behar duten energiaren %25 sortuko da panel horien bitartez, eta gainerako %75, komunitateak taldean egiten duen erosketatik jasoko dute. Hori bai, erosten duten energia ere berriztagarria izango da.

Proiektu horretan Edinor deritzon Petronor Taldearen filialak hartuko du parte eta Juan Diego

kontseilariak adierazi zuenez, «Larraulgo Tokiko Energia Komunitatean parte hartzen dutenek, beren udalerrian energia jasangarria sortzen laguntzeaz gain, autokontsumo partekatuko erregimenean egingo dute, faktura elektrikoa sartzen diren bidesarien eta karguen kostuak aurrezteko». Diegok nabarmendu zuen, sortuko duten energia «0 kilometrokoa» izango dela, eta erosiko duten energia kontuan hartuta, %100ean energia berriztagarriak kontsumitu ahaliko dituztela.

Aurrezpen ekonomikoaz gain, ingurumenari begira ere jarri ziren: «Urtean 5.000 tona karbono dióxido aurreztuko ditugu Larraulen». Aranak ere esan zuen klima aldaketaren aurkako borrokan apustu bat egin nahi dutela herrian, «energia berde, iraunkor eta bidezko baten alde».

Komunitateko kide egiteko, www.teklarraul.eus webgunea bisitatu, udala@larraul.eus helbidera idatzi edo 634 289 327 zenbakira deitu beharko da.

Hernio-Gazume Kontserbazio Bereziko Eremuko sarbideko lanak bisitatu eta aurkeztu dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen saileko ordezkariak

Ondarea berreskuratzeko lanak

Jon Miranda Alkiza

Ondarea berreskuratzeko Alkizan egin diren lanak aurkeztu zituzten ostiralean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jose Ignacio Asensio Ingurumeneko diputatuak eta Monica Pedreira Ingurumen zuzendariak, Inaki Irabazabalbeitia alkatearekin batera. Hain justu, Hernio-Gazume Kontserbazio Bereziko Eremuko sarbidean egin dituzten lanak bisitatu zituzten, aurkezpena egitearekin batera.

Orain arte Fagus-Alkiza egitasmoaren barruan zeuden bi

ibilbideak egokitu eta Begiratoariaren ibilbide zirkularra osatuko dute Alkizan. Bost bat kilometroko zirkuitu laburra izango da eta herrian dagoen ondare etnografiko-arkeologikoa eta balio paisajistikoa erakusteko erabiliko dute.

Ibilbidea egokitzeko lanak egiteko Alkizako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako departamenduaren laguntza jaso du. 56.000 euro inguruko inbertsioa egin dute eremua egokitzeko eta kostuaren %100 bere gain hartu du aldundiak.

Eskertuta agertu da Inaki Irabazabalbeitia alkatea Gipuzkoako



Jose Ignacio Asensio eta Inaki Irabazabalbeitia, hilerri ondoko aparkalekuan. J.M.

Foru Aldundiarekin. Hilerri ondoko aparkalekua egokitu eta gune bat atondu dute. Bisitarien harrera egiteko nodo gisa egoki-

tu dute, ibilbide berdeen sarearen seinaleztapena eta ibilbidea bateratzeko eta sarrera eta egoaldi atseginerako gune gisa

hartzeko. Horretarako, egitura aldetik hobetu da eremua (hondoratzea, drainatzea...) eta eserlekuak eta mahaiak, haurrentzako jolastokia eta iturria jarri dituzte eta espezieak landatu. Era berean, ibilbideen hasiera seinaleztatu dute eta Alkizako herrigunetik pasatzen den eremuko argiztapena hobetu dute.

«Hitzetatik ekintzetara pasa behar dugu eta hau da bidea. Orain jendeak gozatu behar du, etorri dadila Alkizara, txukun baina etorri dadila. Gipuzkoa Klima 2050en helburua hirietako azpiegitura berdeak sustatzea da, klima-aldaketara egokitzeko neurri gisa. Horrek, gainera, biztanleriaren ongizatea eta bizikaltatea hobetzea dakar, osasun-indizeak handitzea, pertsonen izaerarekin berriro konektatzea eta hiri-espazioen paisaiaren kalitatean hobera egitea», esan zuen Jose Ignacio Asensiok egin dituzten lanak aurkeztu zituztenean.

KIROL EMAITZAK

Aretu futbola

BIGARREN B MAILA

2C AZPIMULTZOA

18. jardunaldia

Lauburu Ibarra	3
San Juan	3

Saikapena

1. Tafatrans	48p
2. Otxartabe	41p
3. Lauburu Ibarra	38p
4. San Juan	37p
5. Pinseque	29p
6. Juventud del Circulo	25p
7. Esc. Ciu. de Guadalajara	27p
8. Auzoak de Zierbena	22p

Hurrengo jardunaldia

Tafatrans (1)

Lauburu Ibarra (3)

2C AZPIMULTZOA

20. jardunaldia

Tauste	3
Laskorain	1

Saikapena

1. Patatas Gomez Sala	29p
2. Tauste	26p
3. Gora Grupo Iron	22p
4. Villa de Quel	23p
5. Ibararte	16p
6. Laskorain	12p
7. La Union Calatayud	13p
8. Kukuyaga Etxebarri	12p
9. Castro Urdiales	10p

Hurrengo jardunaldia

Laskorain (6)

Patatas Gomez Sala (1)

Eskubaloia

1. MAILA NAZIONALA

24. jardunaldia

Tolosa Eskubaloia	34
Romo Indupime	27

Saikapena

1. Helvetia Anaitasuna	42p
2. Hierros Servando Eibar	40p
3. Ereintza Aguaplast	33p
4. Uharte	31p
5. Barakaldo	30p
6. Beti-Onak	28p
7. Tolosa Eskubaloia	25p
8. Romo Indupime	23p
9. Egia	23p
10. Easygas Urduliz	23p
11. Estudio Matmata Zara. Ade.	22p
12. Jacar San Antonio	21p
13. Dominicos Zaragoza	18p
14. Navarrete	9p
15. Avefor Huesca	5p

Hurrengo jardunaldia

Easygas Urduliz (10)

Tolosa Eskubaloia (7)

Futbola

1. MAILA NAZIONALA

22. jardunaldia

Mulier	1
Tolosa CF	2

Saikapena

1. San Ignacio	27p
2. Atletico Revellin	22p
3. Berriozar	22p
4. Castejon	22p
5. Tolosa CF	21p
6. Muller	20p
7. Aurrera de Vitoria	19p
8. Oiartzun	17p
9. Arratia	15p
10. Logroñes	14p
11. Itaroa Huarte	9p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (5)

Castejon (4)

HIRUGARREN MAILA

23. jardunaldia

Tolosa CF	1
Lagun Onak	2

Saikapena

1. Santurtzi	26p
2. Tolosa CF	24p
3. Aurrera de Ondarroa	23p
4. Cultural Dep. Durango	22p
5. Balmaseda	21p
6. Sodupe	20p
7. Somorrostro	20p
8. Lagun Onak	18p
9. Ariznabarra	16p
10. Urgatzi	10p

Hurrengo jardunaldia

Ariznabarra (9)

Tolosa CF (2)

Saskibaloia

1. MAILA GIZONEZKOAK

12. jardunaldia

Redline Mekanika TAKE	57
Ordizia-Basoa Banaketak	66

Saikapena

1. Getxo	9-1
2. Leioa	8-3
3. Redline Mekanika TAKE	7-2
4. Fundacion Bilbao Basket	7-3
5. Tecnum-Askatuak	6-5
6. Ordizia-Basoa Banaketak	6-4
7. Universidad Deusto Loiola	5-4
8. Aranguren Multibasket	4-5
9. Estudios Y Obras Rekal. Una.	3-7
10. Atletico San Sebastian	2-8
11. Disdira Bitxitegia	2-7
12. Arri BKL	0-10

Hurrengo jardunaldia

Disdira Bitxitegia (11)

Redline Mekanika TAKE (3)

Irisarri: «Oso lasterketa gogorra izan da Itzulia»

Caja Rural-RGA taldeko Jon Irisarri txirrindulariak Euskal Herriko Itzulian izan diren parte hartzaileen maila nabarmendu du

Imanol Garcia Landa

Gustura bukatu du Caja Rural-RGA taldeko Jon Irisarri txirrindulari leaburuarrak Euskal Herriko Itzulia. Bigarren etapan ihes eginda egon zen taldetxo batean, eta saiatu zen pasatu zituzten mendateetan lehena izaten, baina hori ez zuen lortu. «Aurten beste urteetan baino puntu bat gorago izan da parte hartzaileen maila», esan du Irisarri. «Pandemia dela eta, proba gutxiago izaten ari dira, eta egiten diren beti ere maila gehiago izaten dute. Oso lasterketa gogorra izan da eta asko sufritu dugu». Lasterketak izan duen abiadura handiak erakutsi du aurtengo maila. Horren erakusle ere Itzulia irabazteko lehian Roglic eta Pogacar aritu direla izan da, iazko Tourra lortzeko aurkari izan ziren bi txirrindulari esloveniarrak; azkenean Roglic-ek eraman zuen garaipena.

Eskualdetik ere igaro zen Itzulia, eta Irisarri asmoa bazuen bertatik ihes eginda pasatzeko, baina ahaleginak egin arren ez



Jon Irisarri, bigarren etapan ihes eginda joan zenean. CAJA RURAL-RGA

zuen lortu. «Ilusio berezia nuen, baina egun horretan talde guztiek nahi zuten norbait sartu ihesaldian, eta etaparen lehen zatian ezinezkoa izan zen ihesaldia osatzea», esan du leaburuarrak. Azkenean, Alkizan gora osatu zen taldetxo bat, baina ez zen bertan egon Irisarri, ordurako esfortzu handia egina baitzuen. Hori bai, gertuko animoak jaso zituen: «Kuadrillakoak Alkizan izan ziren, pankarta eta guzti. Neskalaguna Hondarribian zegoen, eta nire ama eta familia Jaizkibelen zeuden. Lasterketa guztian zehar babesak izan nuen.

Pena izan zen aurretik ihesaldi bat ez sortzea, nik harrapatu ahal izateko».

Larunbatean bukatu zen Itzulia, eta igandean atsedean hartzeko aukera izan zuen Irisarri. Hori bai, arrabola egiten aritu zen, gorputza mugimenduan izateko. Atzo goizean entrenamendu pixka bat egin eta zuzenean Valentziara joan zen taldekideekin, bihartik Valentziako Itzulian parte hartzen baitu taldeak. «Orain aprobeztatu behar dugu Itzuliak utzi digun sasoi puntua, beste lasterketetan aurrean egoteko», esan du Irisarri.



TXIRRINDULARITZAREN FESTA

Itzuliaren laugarren etapan, aurreko ostegunean, txirrindulariak eskualdetik igaro ziren. Punturik nabarmenena Alkizako gaina izan zen. Bertan, Itzulia lehiatzen ari ziren txirrindulari profesionalen gain, hauei animoak ematera joandako zale eta zikloturista ugari elkartu ziren. I.G.L.

Peñarekin batera Altuna izango da finalerdietan

Altuna eta Jakaren arteko kanporaketa amezketarra izan da garaile; asteburu honetan hasiko da finalerdietako ligaxka

Imanol Garcia Landa

Binakako Pilota Txapelketan erabakita geratu dira finalerdietan, eta baita lehen jardunaldiko partidak ere. Altunak III.ak eta Mariezkurrena II.ak 19-22 irabazi zioten Jaka eta Martijari, eta larunbatean Elezkano II.a eta Zabaletaren aurka jokatu dute finalerdietako lehen partida, Labriten. Ezkurdiak eta Ladis Galartzak 19-22 irabazi zioten Olaiola II.ari eta Rezustari eta aurrean izango dituzte, igandean, Adarragan, Peña II.a eta Albisu.

Partida gogorra eta estua izan zen, tentsioz beterikoa, Altuna eta Jaka aurreko koadroetan zeudela jokatuakoa. Altunak, partidaren amaieran ETBn azaldu zuenez, horrelako partidetan ez da erraza izaten gozatzea: «Hitz eginda genuen partida egingen ez dugu asmatu, eta horrek pixka bat lekuz kanpo utzi gaitu. Hasieran tanto onak egin ditut, baina gero konfiantza galdu dut, eta Erikek hor tanto onak egin ditu. Jonek hasieran ez zion pilotari neurria hartzen eta hori guzutzako ez zen albiste ona».

18-13 galtzen joan ziren, eta atsedendia horretan elkarri esandakoa gakoa izan zela azaldu zuen Altunak: «Azkeneko partidetan kontra atera zaizkigula gauzak, eta ziur geundela



Jon Ander Peña. ATARIA

buelta eman behar geniola partidari, hortik aurrera oso serio jokatu».

Jakak, bere aldetik, penaz hitz egin zuen, partida irabazi eta finalerdietara sartzeko aukera izan baitzuten: «Alde batera edo bestera erortzea zeukan partida izan dela iruditzen zait. Pilotak distira izan duen bitartean nik uste dut Julenek min handia egin diola Joni; niri aukerak sortzen zizkidan, eta nik huts bat edo beste egin arren, jakin dut aukera horiek aprobetxatzen». Partidaren erditik aurrera aurkariak beste pilota bat atera dutela azaldu zuen: «Gehiago kostatzen zen mugitzea, makalagoa zen, eta harekin mina egin digu. Jo-

koan sartzeari gehiago kostatu zaigu, Jonek gehiago gozatu du, eta xehetasun txikiengatik partidak alde egin digu, eta sekulako penarekin geratu gara».

FINALERDIEI BEGIRA

Jon Ander Peña tolosarra izan da orain arteko ezustea txapelketan, maila nagusian lehen aldiz parte hartu eta zuzenean finalerdietara sailkatu delako Albisurerekin batera. «Egia da atzelari on batekin ari naizela parte hartzen, urte askoan goi mailan dagoenarekin, baina esan daiteke ezustekoa izan dela finalerdietan zuzenean sartzeari, esan du Peñak. «Ez genuen espero aurreneko bi postuetan sartzeari. Gure helburua txapelketan jarraitzea zen, eta behin kanporaketetan egonik finalerdietara sartzeari, baina lehen bi postu horietan sartzeari izugarria izan zen».

Finalerdietan berriro ere dena zerotik hasten dela nabarmendu du Peñak, eta maila on bat ematea dutela helburu. «Gu ondo ari gara entrenatzen», esan du pilotari tolosarrak. «Beste hiru bikote indartsu sailkatu dira, eta lan zailak izango dira. Gu beti lanean ari gara, lesioekin oraingo zortea izaten ari gara, eta ea hiru partidetan adina maila ematen dugun».



Gipuzkoako Batel Txapelketan parte hartu duten TAKeko arraunlariak. TAK

Gipuzkoako Batel Txapelketan, bi bandera lortu dituzte TAKekoek

Erredakzioa

Asteburuan jokatu dituzte Gipuzkoako Batel Txapelketak, eta bertan izan dira TAK klubeko ontziak. Bi bandera lortu dituzte, eta biak infantil mailan, neskek zein mutilak irabazi baitute. Kadeteetan, neskek bigarren izan dira eta mutilak hirugarren amaitu dute. Jubenilei dagokionez, neskek hirugarren izan dira eta mutilak ez dira finalera sartu.

Behin Gipuzkoako Txapelketa jokatu, Euskadiko Txapelketaren txanda izango da orain. Asteburu honetan bertan jokatu da, Legutión (Araba). Txapelketa horretara klub bakoitzetik ontzi bana joango da maila bakoitzean. Euskadiko Txapelketan lehen bi postuetan geratzen direnak Espainiako Txapelketarako sailkatzen dira; Galizian jokatu da txapelketa hori, apirilaren 24 eta 25ean.



Infantil mailako neskek lortu zuten banderetako bat. TAK

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu



ASTEARTEA, 2021EKO APIRILAK 13
Argitaratzailea:
 Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeke Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
 villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
 anoetalea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
 alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
 Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 13

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Xilografia tailerra (linoleo gainean): sormen tailerra, kultur etxean, 18:00etan.

Tolosa. Irakurketa klubaren hitzordu berria, Ainara Azpiazu Axpik dinamizatuta. Elisabeth Casillas eta Higinia Garayren *Emakume guztiok* lana aztertuko dute, 18:00etan, udal liburutegian.

Tolosa. Batukada feministaren ikastaroa, Ainara Sarasketaren eskutik, Laskorain Ikastolan (Usabal), 18:30ean.

Tolosa. Heriotzari buruz hitz egiteko topaketa, Amaroako Auzoetxean, 19:00etan.

Zizurkil. Plazida Otaño liburutegian 5. urteurrena. *Nekeetan, irria ezpainetan*, umorea bidelagun. Tertulia gaztelaniaz, Monica Leivak gidatuta. *Una lectora nada comun*, 18:00etan, liburutegian.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!

11:30. Gaurkoan Tolosaldeko

15:00. Elkarrizketa (Lizar Begoña)

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko

20:00. Tolofolk kontzertua: Turlanch taldea

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Magazina: eguraldia, albisteak, kolaboratzaileak...

15:00. Amalurra. Ingurumenari buruzko saioa.

16:00. Zebrabidea. Magazina.

20:00. Kantazgora. Eskualdeko

musikarien proposamenekin osatutako musika saioa.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Edurne Mujika Martinez. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz. Galarza. Laramendi kalea, 6. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro eguzkitsua bueltan izango dugu. Nahiz eta, tarteka zeruan erdi eta goimailako hodei batzuk ikusiko ditugun, hauek ez diote trabarik egingo eguzkiari eta eguraldi ederra izango dugu. Eki/ipar-ekialdeko haizea izango dugu, eta tenperatura igo egingo da, maximoak 15-17 graduan errendituz.

Bihar. Giro ederra. Berriz ere, zeruan erdi eta goimailako hodei batzuk agertuko dira, non zeruari kolore zurixka emango dioten. Hala ere, ez dute bestelako ondorioirik ekarriko eta giroa argia izango da. Haizeak eki/ipar-ekialdetik jotzen jarraituko du eta tenperatura antzeko balioetan mugituko da, 16-17 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Slow Art Day egunarekin bat eginez, diziplina ezberdineko hainbat artista elkartu ziren larunbatean Alkizako Ur mara museoan; euren lanak aurkeztu, eta hausnarketak partekatu zituzten

Artea, moteltasunez

Josu Artutxa Herria

Slow Art Day eguna ospatu zuten Alkizako Ur mara museoan, larunbatean, diziplina ezberdineko bertako nahiz nazioarteko artisten presentziarekin.

Mundu mailako mugimendu artistikoa da Slow Art Day, Phil Terryk 2009an sortua. Urtero, apirilean, artea begirada motel baten bidez esperimintatzeko ekitaldiak antolatzen dira mundu osoko museo eta arte-galerietan, eta publikoari poza aurkitzen laguntzea da ekimenaren helburua.

Hain justu, hori egin zuten Ur mara museoan. Bertako nahiz nazioarteko artista ezberdinak gerturatu ziren bertara, bakoitza bere lanekin, haiek aurkeztu, gainerakoek behatu eta elkarrekin iritzia nahiz hausnarketak partekatzeko. Besteak beste, Bea Gonzalez Rojo, Idoia Iturri eta Diana Vasina margolariak edota txotxongiloekin aritzen den Corrado Massaci izan ziren museoako arte-negutegian kokatu duten erakusketan. Gainera, Maria Giro Coll artista eta kultur bitartekari kataluniarrak, Jose Perez Ocañak 1983an Alkizako eskolako haurrekin egindako eskultura aurkeztu zuen.



Artista ugari hartu zuten parte Slow Art Day ekimenean. JOSU ARTUTXA

zozketak

Atarikideentzat **bi liburu** ditugu

EMARIAK: Emakumeek Historian zehar egin dituzten ekarpenen bilduma.

Zozketetan parte hartzeko **Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95** edo www.ataria.eus

ZORION AGURRAK

943 65 56 95
 ataria@ataria.eus
 San Esteban 20
 Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

ZORION AGURRAK

Urte askoan!

Zorionak Luka!
 Gaur urtebete. Muxu asko, familiaren partetik!